

## **ADIERAZPEN INSTITUZIONALA - LANDA EREMUKO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA 2022**

Gaur, urriak 15, landa eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna da. “Nafarroako landa eremuko erronka feminista izanen da edo ez da izanen” lelopean elkarrekin ospatuko dugu egun hau Berdintasun Teknikaria duten toki eta lurralde entitateek. Emakumeek, beren aniztasun osoan, Nafarroako landa-eremuetako lurraldeen jasangarritasunean duten zeregina eta ekarpena aitortu nahi dugu. Era berean, arras modu aktiboan lagundu nahi dugu ingurune hori eboluzioaren, garapenaren eta aurrerapenaren adibide izaten jarrai dezan, bai ekonomiaren esparruan, bai gure herri eta landa-eremuetako gizarte- eta kultura-arloan.

Testuinguru zabal horretan, emakume guztiek funtsezko eginkizuna izan dute eta dute, eta, beraz, toki-erakundeek beren bizi-kalitatea hobetzeko lan egin behar dugu, zerbitzu publikoetara sartuz eta haien aldarrikapen eta beharrei erantzunez.

Horregatik, apustu sendoa egin nahi dugu, erronka garrantzitsuak ekarriko dituen. Erronka horiek landa-eremuan lan egiteko kontuan hartzeko estrategia izanen dira, gure lurraldeetan etorkizun oparoa, bidezkoa eta baketsua eraikitzeko funtsezkoak direlako: genero-berdintasuna landa-lurraldeetan zeharka sartzeari, inguru horretako emakumeen eta nesken ahalduak, emakumeen parte-hartze soziopolitikoak herritar aktibo eta boteretsuak izateko, lana eta bizitza pertsonala uztartzea, emakumeen elkartegintzari eta berdintasunaren alde lan egiten duen elkarteak laguntzea eta baliabideak ahalik eta gehien optimizatzea.

Bereziki, uste dugu lehentasuna eman behar zaiela honako gai hauei:

- Emakume gazteak kontuan hartzea, hirietara joan ez daitezkeen garapen pertsonalerako eta lan-garapenerako aukeren bila.
- Emakumeak norberaren eta besteren konturako lan-merkatuan sar daitezkeen sustatzea, landa-eremuan hirietan baino zailagoa baita.
- Pentsamolde-aldaketa lortzea, emakumeen eta gizonen arteko rol-banaketaren barruan bereizkeria-egoerarik sor ez dadin eta landa-eremuko emakumeen egoera pertsonala eta lan-egoera hobetu dadin. Emakume horiek ikusezin bihurtu dira, eta baserriko lanez gain, “etxe- eta familiako zereginak” ere emakumeek egin beharreko lanen gisa ikusi izan da beti.

Azken finean, toki-erakundeek gure ahaleginak bateratzen ditugu landa-eremuan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra bermatzeko. Horretarako, emakumeen ahalduak aitzinera egin behar da, eta emakumeen presentzia eta parte-hartze aktiboak areagotu behar dira bizitzako eremu guztietan. Landa-eremuko emakumeak agerian eta aintzat hartuak izatea da gure konpromisoa, eta, horregatik, bat egiten dugu emakumeen elkarteak egiten ari diren lanarekin eta haien aldarrikapenen alde egiten dugu.

Modu positiboan laguntzen jarraituko dugu, Nafarroako lurralde zabal eta askotarikoa osatzen duten herrietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aitzinera egiteko, horrek ekarriko duen onuraz jabetuta.

## DECLARACIÓN INSTITUCIONAL - DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES RURALES 2022

En esta fecha del 15 octubre, en el que conmemoramos el Día Internacional de las Mujeres Rurales, bajo el lema de “El desafío rural de Navarra será feminista o no será”, de forma conjunta las Entidades Locales y Territoriales que cuentan con Técnica de Igualdad queremos reconocer el papel y la aportación de las mujeres, en toda su diversidad, a la sostenibilidad de los territorios de la Navarra rural, contribuyendo muy activamente a que este entorno siga siendo un ejemplo de evolución, desarrollo y progreso, tanto en el ámbito económico, como en el social y cultural de nuestros pueblos y zonas rurales.

En este amplio contexto, todas las mujeres han tenido y tienen un papel fundamental, por lo que las Entidades Locales debemos trabajar para mejorar su calidad de vida mediante el acceso a los diferentes servicios públicos y la atención de sus reivindicaciones y necesidades.

Por ello, queremos hacer una apuesta firme que conlleva retos importantes, entendidos como estrategias clave para trabajar en el medio rural, por ser esenciales para construir un futuro próspero, equitativo y pacífico en nuestros territorios: la incorporación transversal de la Igualdad de género en los territorios rurales, el empoderamiento de las mujeres y las niñas de este entorno, la participación socio política de las mujeres para el ejercicio de una ciudadanía activa y con poder, la conciliación de la vida laboral y personal, el apoyo al asociacionismo de las mujeres y al tejido asociativo que trabaje por la igualdad y la optimización máxima de los recursos.

De forma más específica, creemos que es prioritario prestar especial atención a las siguientes cuestiones:

- Tener en cuenta a las mujeres jóvenes para evitar que tengan que marcharse a las ciudades en busca de oportunidades de desarrollo personal y laboral.
- Promover la incorporación de las mujeres al mercado laboral por cuenta propia y ajena, más difícil en el ámbito rural que en el urbano.
- Conseguir un cambio de mentalidad enmarcada en la división de roles entre mujeres y hombres de forma que no se favorezcan situaciones de discriminación y que mejore la situación personal y laboral de las mujeres rurales, las cuales han sido invisibilizadas y cuyos trabajos se han considerado siempre como una “extensión de las tareas del hogar y de la familia”.

En definitiva, las Entidades Locales aunamos nuestros esfuerzos para garantizar la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres en el entorno rural, un objetivo que pasa por avanzar en el empoderamiento de las mujeres y por incrementar su presencia y participación activa en todos los ámbitos de la vida. Hacer visibles y reconocidas a las mujeres del medio rural es nuestro compromiso y por eso nos sumamos al trabajo que las organizaciones de mujeres vienen llevando a cabo y apoyamos sus reivindicaciones.

Seguiremos contribuyendo de una forma positiva para avanzar en la igualdad entre mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida en las distintas localidades que componen el amplio y diverso territorio navarro, conscientes del inmenso beneficio que ello proporciona.